

XAGUTXOREN

Xagutxoren gertaerak
ezin here gosaerikempenpera.
Gazta bat dago, hor zintzilikan
ta xagutxo gosaeru bertatikan.
Gazta ikusi ta, eho zabalik
pentsatu du igotzea nonbaitik.
Axunen hantek sukalde erdian
ta igo nahirik sartu da gona azpian.
Karraxi garratz, gonak astindu
Axungandik gainera jauki buruz.

Haizak, hi *agur du ezazu*

Haizak, hil
kalean baldurrez hoan horil (ber)
Abrigoen solapak altxata hoa,
txapela begitafio sarturik,
ez duk atzera begiratutzen ere
ifior ote datorren ikaraturik.
Ez haiz piyo hire etxean ere,
ez duk ifiorekin konfiantzarik,
arropak ere erregistratzen dituk
ba ote daukaken mikrofonorik.
Utzi itzak pintura poteak,
gorde ondo hire osasuna,
pentsatu gero gaurko egunez
futbolean zegok etorkizuna.

ZUGAN PENTSATZEN DUT *

Zugan pentsatzen dut
nahi dudalako jakin
zein kolorezkoak diran
maite zure begiak.
Zuri-zuriak dira maite zure begiak
elurra bezalakoak,
zuri-zuriak dira maite zure begiak
inbidi dutek liliak.
Berde-berdeak dira maite zure begiak
tximeletak bezalakoak,
berde berdeak dira maite zure begiak
ez daude horren parekoak.

URAK DAKARRENA

Urak dakarrena, urak daroa
lurra emandakoa, lurrean gelditzen da
eta gu hemen, beti gu hemen.
Zuhaitzak bezala lurrean
kantuak bezala haizean
mulinak bezala erroetan.
ura bezala itsasoan.
Ekaitzak bota arazten
ipar eta hego aldetik
gizonak izateko hasi behar da
gizon izaten hemen.
Urak dakarrena...

diatze uraite

GOIKO MENDIAN

Goiko mendian elurra dago,
orrekaldean izotza,
Ni zeugandik aske nago ta
pozik daukat bihotza.

AGUR, AGUR, AGUR

Agur, agur, agur ilargira noa (ber)
Nerekin daramatzat pentsakizunak,
neronekin ezin ikusiak,
neronekin gose ta gorrotoak
neronekin enbidi guztiak.
Hemen uzten ditut nahirik onenak
hemen pakea ta osasuna,
hemen gizonaren eskubideak,
hemen danontzat askatasuna.
Amets bart gauean egin dut,
amets honek utzi nau poztuta
baina Almeriako bonba horrek
utzi dit ametsa zapuztuta.
Eta orain ezin ilargira joan (ber)

MENDIAN LARRARTEAN

Mendian larrartean aurkitzen da lore
aurrean umetxo bat loretxoari begira
Loreak esan nahi dio: umetxo aska nazi
jaio naiz libre izateko
ta ez loturik egoteko.
Umetxoak ikusirik
lorea ezin bizirik
arantzak kendu nahi dizkio
bizi berri bat eman.
Orduan izango bai du
indarra eta kemena,
orduan izango bai du
ugari bere frutua. (Umetxoak bir)

EGUN SENTIA

Eguzkien argia leihopetik sartzean,
poz eta alaitasunez esnatuko gara;
txorien abestiekin alaitutako eguna
gizonen gorrotoekin ondatuko da eguna
Ibiliko gara elkarri kalte eginaz,
ustez launik handienak
aurrez ondo hitzeginaz.
Datzuen izerdiekin besteak diru eginaz
egia esan dutenak
giltzapera emanaz.
Gauzahoiak ikusteko nola esnatzen gar
gauzahoiak egiteko nola jeikitzen gar
Txoriak alaitutako eguna ondatzeko
hobe genduke-ez esnatu
ta bertan geldi lotan.

HALA KAN *

Hala kan, hala kan
 nire osaba dago Afrikan
 lehoi batek jan dio hankan
 aii zelako mifia daukan (ber)
 hala ken, hala ken,
 atzo basora joan nintzen
 tigre txiki bat txistua jotzen
 abere guztiak dantzatzen (ber)
 Hala kin, hala kin,
 tximinoa danborrakin
 hipopotamoak daude zikin
 txori guztiak nirekin (ber).
 Hala kon, hala kon,
 niri kitarra bat emon,
 elefanteak isilik egon
 eta besteak horkonpon (ber)
 Hala kun, hala kun,
 han dauzkat mila lagun,
 bihar da beste egun,
 berriz kanta dezagun (ber).

ALPERRAREN ASTEA — *

Astelahena jai ondoren alperra
 ezer ez egiteko ez goaz lanera
 taez goaz lanera, ez goaz lanera (ber)
 Asteartea euria goitik bera
 busti eginga gara ta ez goaz lanera
 Asteazkena, osaba ezkontzen da
 eta jai hartzen badu ez goaz lanera.
 Osteguna, amonaren eguna
 hori ospatutzeko ez goaz lanera.
 Ostirala, aginetako mina
 aspifina hartuta bagoaz ohera.
 Larunbata, egun erdiko lana
 egun erdiagatik ez goaz lanera.
 Igandea, lantegia itxita
 lan egin nahi baina ezin joan lanera.

TIK TIKI TAK *

Atzo goizean ikusi nuen gizon bat
 gizon bat mendian.
 Hantxe zebilen indarrez indar
 aizkolaria.
 Tik tiki tak, tik tiki tak,
 ari zen mendian.
 Tik tiki tak, tik tiki tak
 aizkolaria.
 Tik tik tiki tak, tik tik tiki tak...

AZOKARA *

Behin joan nintzen azokara
 erosi nuen txakur bat.
 Txakurrak guau guau nik xaxa berari,
 eraman nion amari.
 Behin joan.....
 Katuakmiau miau
 Txerriak kurri kurri
 Txistuak fli fli

AMETSA

Txoria nintzela, txoria nintzela
 sinistu nuen, sinistu.
 Amets polit hura, amets polit hura
 gaur ere nahi nuke sinistu.
 (asma animalia, lanbide...)

BEHIN DATEAN — *ipuin ezagunak*

Behin batean ihes ikastolatik nintzela
 autoan joan nintzen aitaren baserrira.
 Autoan nindoala po - po - po - po
 Behin batean.....
 trenean, bizikletan, zaldian, motorrean

JOXEPA ETA JOXEPE *

Joxepa eta Joxepe, Joxepatxo ta Josetxo
 famili abeslari bat
 laurok osatzen digute.
 flem, flem, flem, flem, flem, flem, flem, flem
 flem, flem, flem, flem, flem, flem, flem, flem
 flem, flemkeinuka: biboliña
 po, po, po....." : tronboia
 ku, ku, kukurruku...." : pilarra
 pi, pi, pi, pipipiripi : txoria
 ta, ta, ta: txaloa

ASTOA IKUSI NUEN — *

Astoa ikusi nuen betaurrekoekin
 buruan txapela ta gabardinarekin,
 ile luzea eta bibotearekin,
 hizketan egon ginen atzo elkarrakin.
 Astoak esan zidan triste zegoela
 oso zatarra zela bere ikastola,
 berak gure gelara joan nahi zuela,
 gure artean ondo konponduko zela.
 Baietz esan nion nik, lasai etortzeko
 arkatza eta bloka dendan erosteko,
 astoa izan arren trankil egoteko
 asko ikasi eta zintzo portatzeko.

BAT, BI, ... *

Bat, bi, hiru, lau, bat bihiru lau,
 bost sei zazpi, bost sei zazpi
 ikastolak irabazi irabazi aurrera.
 Andoni gaixo dago tripako mifakin,
 amatxo joaten zaio txokolatiakin.
 Bat, bi.....
 (letra berria asmatzeko aproposa).

URTXINTXAK *

Urtxintxak oihanean jauzika,
 aldazkatik aldazkara.
 "Zuk esaidazu ama, zergatik
 ez diren erortzen lurrera?"
 "Nik ere nahi nuke
 izan urtxintxa bezala,
 hain gora hain trebe; izateko libre".
 Urtxintxak oihanean zintzilik,
 buruz behera buztanetik.
 "Zuk esaidazu ama, zergatik
 ez duten burukomifik".

urxuri baten gainean xoriak
kantatzen du kantatzen du
urxuri baten gainean xoriak
kantatzen du biziari.
Xoriek ez dakite
mundu hontan zer gertatzen den
hamar jendetarik sei
nola gosearekin dauden.
Baina guk badakigu
ta hori aski zaigu.

ERROMERIAN ✕

Atzo atsaldean izandu ginen
lagun guztiak erromerian,
hura bai gauza pozgarria
neskatil muxu gorria.
Atsalde guztian ibili ginen
euskal dantzan jatorrean
ta zutik guztiok bai lagun onak
irrintzi entzutean.
Erromeri ederra zen
Santio mendiko tontorrean,
hantxe egin nuen andregai
bai emakume alai.
Gero kalera goitikan bora
jeisterakoan
lore eder bat neretzat eman zidan.
Zutik zutik euskaldun emakume bikainak
irrintzi egin zazute eztarririk onenak

MENDIZALEAK ✕

Mendizaleak aurrera
goazen mendi gailurrera
gogo soinak esanatzera laralala.....
Aufi goazen bidetxigorrez
beti gora maldetatik;
ederra da gure herria
maite dugu bihotzetik
ez da munduan hoberik laralalalalalala
ez da munduan hoberik.
Goazen mendirik mendi
baserritik baserrira
esanaz alaitasunez
laister dator bak anaia gurokin (ber)
laisterka bidetxigorretatik
erromerira etorri gara
alai alai kanta dezagun
ta dantza egin dezagun mutilok!
Gure dantza alaiekin
gure kanta jatorrekin
erromerira etorri gara laralalala....

GONA GORRIA ✕

Nire aitak amari
gona gorria ekarri (ber).
Berriz ere maiteko dio
nire amak aitari.
Nire aitak amari gona gorria ekarri.
Gona gorri gorria
zazpi jostunek josia (ber).
Berriz ere.....
Nire amak aitari praka
praka berriak ekarri (ber).
.....

Geuria da ta geuria da (je!)
Geuria da ta geuria da.
Geuria da ta geuria da
geuria da ta Euskal Herria.
Geuria da ta geuria
Geuria da ta geuria
Geuria da eta geuria
Geuria da ta da ta Euskal Herria.

IKUSI MENDIZALEAK ✕

Ikusi mendizaleak baso eta zelaiak,
mendi tontor gainera igo behar dugu.
Ez nekea ez da bide txarra
gora gora neska-mutilak a,a,a
gu euskaldunak gara Euskal Herrikoak.
Nemen mendi tontorrean
euskal lurre artean,
begiak zabaldurik, bihotza erreta.
Hain ederra, hain polita da ta
Gora gora! Euskal Herria, a,a,a
gu euskaldunak gara Euskal Herrikoak.

AGUR ZUBEROA ✕

Agur Zuberoa, bazter guztietako
txokorik ederrena.
Agur Aterratze zurekin ditut
ametserik goxoenak
bihotzaren orditik
bortzetan jalki ditadazut asperena
zu utzi geroztik bizi naiz tristerik
abandonaturik
ez baita herririk Paris ez besterik
zu bezelakorik.
Sorlekua utxirik gazte nintzelarik
Parisera joan nintzen kuralez beterik
plazerez gose eta buruan harturik
behar nuela alegeran bizi
bortzetan geroztik negar egiten dit
Zuberoagatik (ber).

MAITE ZAITUT

Itasoa inaino dago
Baionako barraraino.
Nik zu zaitut maitiago
txorifoak umeak baino.
Nik zu zaitut maitiago
arraintxoak ura baino.

XARMANGARRIA ZERA ✕

Xarmangarria zera
oder ota gazte
one bihotzak ez du
zu besterik maite.
Beste zenbait bezela
ote zera libre
zurekin ezkontzeko
dudarik ez nuke.

EZIN ISILIK GORDE!

Ezin isilik gorde minez urraturik
lotsaz gizonagatik burua makurturik.
Ez zuen gorrotorikan,
gizona pobrea zen,
loturik oraman dute
gauaren ilunean.
Ez zuen dirurik maite, gizon pobrea ze
bakea oreitearren erori da burrukan,
Gizon errugabea penaz hestaturik
hila diruagatik gizonak salbaturik.

KONTRAFAS

Garaziko herria benedika dadila (ber)
euskarari eman dio behar zuen tornua (ber)
Euskara, euskara jalgi hadi plazara (ber)
Bertze jendek uste zuten
ezin lekribaz zaitelen (ber)
orain dute porogatu
engainatu zirela (ber).
Euskara, euskara jalgi hadi dantzara (ber)
Bertzeak orok izan dira

bere goien gradora
orain hura iganen da
bertze ororen gainera (ber),
Euskara, euskara jalgi hadi kanpora (ber)

GOAZEN MENDIRIK MENDI

Goazen mendirik mendi
euskotar gazteak.
Goazen aldatzaz gora
Mendigoizaleak.
Haize osasuntsuaz
bizitza indartzera,
Aberri guztiari Agur egitera.

~~XXXXXXXXXXXX~~

NERE ETORRERA LUR MAITERA

Ara non diran mendi maiteak,
ara non diran zelaiak,
baserri eder zuri-zuriak,
iturri eta ibaiak.
Hendaian nago zoraturikan,
zabal-zabalik begiak;
ara Euskadi lur hoberikan
ez da Europa guztian (ber).
O! Euskal Herri, eder maitea,
ara hemen zure semea,
bere lurrari mun ~~xxxx~~ egitera
beste gabe etorria.
Zuregantikan emango nuke
pozik, bai, nire bizia;
beti zuretzat, hil arteraino
gorputz ta arima guztia (ber),

EZ

Kanta zak euskalduna,
Kanta zak hire herria!
Kanta zak euskalduna
hire aberria! (ber).
Euskal mendi zelaiak
bakezko jauntzitan.
Etxe zuri gorriak altxotan.
Gure ikurrin bandera
plaza kaskootan.
Herriarrek kantuz ostatutan.
Horra aberria nola nik utsi dudan
kanpo alde joan egunetan.
Euskadi odoletan dute herrestatu,
ezpata ukalditan puskatu!
Gu, Euskadiko somak, hor behar isildu
maitatzea omen da bekatu!
Ez, euskalduna, ez!
Ez gaiten ba lotsatu!
Ulitzak lehoia aurtiko dul

AGUR JAUNAK

Agur jaunak, jaunak agur,
agur t'erdi.
Danak Jainkoak einak gire
zuek eta bai gu ere.
Agur jaunak, agur, agur t'erdi
hemen gire.

ASKATASUN EGUZKIA

Askatasun eguzkia
basotik iraten da,
bere argia edonun
arin zabaltzen da.
Itzartu zaiz euskotarrak
Aupa euskaldun guztiak!
Gora, gora antzinako legial!

NIRE MAITEARENTZAT

Ume eder bat ikusi nuen
Donostiako kalean,
hitz erditxo bat hari esan gabe,
nola pasatu parean? (ber)
Gorputza zuen liraina eta
oinak zebiltzen aldean;
politagorik ez dut ikusi
nire begien aurrean. (politagorik..)

AGUR EUSKAL HERRIARI

Gazte gaztetandikan
herritik kanpora,
estranjeri aldean
pasa det denbora.
Herri alde guztietan
toki onak badira
baina bihotzak dio:
"Zoaz Euskal Herrira" (ber)

ZIBILAK ESAN NAUTE (?)

Zibilak esan nauto biziro egoki
Tolosan bihar dala gauza erabaki; (ber)
Giltzapean sartu naute poliki poliki
Negar egingo luke nire amak balaki.
Jesus tribunalean zutenean sartu
etzion Pilatosek kulparik bilatu
Neri ere argituta ez didate barkatu
zergatik ez dituzte eskuak garbitu.

BOGA, BOGA

Boga boga mariñela, mariñela,
joan behar dugu urrutira, urrutira
bai Indietara, bai Indietara.
Ez det (2) mik ikusiko
zure kai ederra, kai ederra.
Agur (2) Ondarruko itsaso bazterra.

AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA

~~Aitorren hizkuntz zaharra~~
nahi dugu zabaldu,
munduaren aurrean
gizonki azaldu;
balidin gure zainetan
odolik badugu
euskaldunak euskaraz
hitzegin behar dugul.
Zein hizkuntza ederrea
euskara guria
inan ez dut aurkitzen
beste bat hobia
Usai gozodun hizkuntz
txukun da garbia
biraprikan ez duen
hizketa garbia.
Gora euskara maitea
zoragarriena
euskaldunen artean
maitagarriena.
Munduan sortu zenik
hizkuntzik zaharrena
Gora ta gora euskaldunok
eta gure euskara.

EGUN DA SANTI MAMIÑA

Egun da Santi Mamiña
benetan egun samiña
goiko zeruan gorde dezala
luzaro neure anima.
Itsas aldean izarra
hari begira lizarra
euskara salbó ikusi arte
ez dut moztuko bizarra.
Esanen dizut egia
hau ez da usategia
erroi artean izan nintzaden
benetan ausartena.

NERE ETXEA

Ikusten duzu goizean
eguna argitzen danean
menditxo baten gainean.
Etxe txuritxo, txiki polit bat
lau haitz haundiren erdian
iturritxo bat aldean,
txakur txiki bat atean:
hantxe bizi naiz pakean.

EDURRA TEILATUAN

Edurra teilatuan, zakua lepoan,
ibili beharko dugu aurtengo neguan
rau, rau, rau rakataplau!
Hau duk humorea, utzi alde batera
euskaldun jendea. (rau...).

HATOR, HATOR MUTIL ETXERA

Hator, hator mutil etxera
gaztañak ximelak jatera,
Gabon gaba ospatutzeko
aitaren ta amaten ondoan.
Ikusiko dek aita barrezka
ama be poz atseginez.
Eragiok mutil aurreko danbolin hori
Gaztainak erre artean (ber)
Txipli, txapla, punnn!
Gabon gaba pozik igaro daidun!

IXIL-IXILIK DAGO

Ixil-ixilik dago kaia barrenian.
ontzi txuri polit bat uraren gainean.
Goizeko ordubietan esnatutzen gera
arrantzaliarekin joateko urrutira.
Pasatzen naizenean zure leihopetik
negarra irteten xdit begi bietatik (t)
Zergatik zergatik zergatik
zergatik negar egin?
Zeruan izarra dago itsaso aldetik (be)
Bat, bat, bat bart errondan ibili
bart parrandan ibili.
Bi, bi, bi ez naiz ondo ibili
ez naiz ondo ibili.
Hiru, hiru, hiru kolkoa bate diru
kolkoa bete diru.
Lau, lau, lau sardiña bakalau.
Antero txaparrotia, Kaisaren bibotia
haretzek eraman, eraman
presko txipiroia. (Antero...)

HAIZE HEGOA

Haize hegoa, gau epela
ilargiaren argi,
mutxurdiak leihuetan
teilatuan katu bi.
Bide ertzean zenbait kanta
gau erdiz arnoari, *keimuta ilargiari*

*hargaindako segun zaharrik
kainke ilargiari*

LORE GORRIEN BALADA

Udaberriko lili garbiak
gure lurrean elduak...
haueko amets bat bezala.
egunsentian galduak...
gizon dirudun baten etxean
hain gazterik ustelduak...
Loreak zeinek jarri zituen
elizako alderetan?
Nagusiak akarritako
zilarrezko ontzietan?
Orain larrosik ez da ikusten
Euskal Herriko kaletan.

OKLAHOMA

Oklahomam bada "vaquero" bat
jendeak Tom deitzen duena,
ta gehiegi edaten duenean
arro-arro beti jartzen da.
Bere lagun artetik omena lokarrikin
zaldi eta ardoakin beti nagusi;
bere bihotzak ere ezagutzen emakumek
beti hauekin alai eta pozez.
Baina horrenbeste arzakari(a)
buketzen da bere etxean
egunero artetik sartzean.
amak isilarazten duanean. (Bere..ber=)

BERDABIOKO BERTSOAK

Goizuetan bada gizon bat
deritzen zaio "Trabuko";
hitzak ederrak, bihotza paltso,
sekula ez zaio paltako;
egin zituen dilijentziak
berari zaizko damuko.
Ongi, ongi oroituhadi
zer egin huen Elama-n
diguntu horrek izandu balu
ahaidekorikan Lesakan,
orain bainola(he)n egongo hintzan
ni orain nagoen atakan.
Nere andreak ekarri zuen
Aranaztikan dotea;
hobe zukean ikusi ezpala
Berdabioko atea;
Orain etzuen hark edukiko
dadukan pesalonbrea.

SEASKA KANTA

Amaren bularra, haurraren janari
haurraren negarra beti hunkigarri.
Baratz honen erdian goseak nago ni
zure bular laztanaren antsiz ta egarriz.
Zure bular politak zerrien jostailu
edertasunak kontuz gorderik behar du.

MAITETXO ITSASOAN DAGO

Maitetxo itsasoan dago
itsasontzi batean.
Maitetxi itassoan dago
urrutirako bidean.
Maite, maite,
ez ni utzi hemen kaiean.
Maite, maite,
zu nere bihotzean.
Maitetxo noiz etorriko da
nire bihotza zai dago.
Maitetxo noiz etorriko da
biok elkar hizitzeko.

EZ KANTA BELTZA

Kaleak gutan jarri ziraden
eta txakurrak katerik gabe
heron bizitzen nagusi.
Ordu larriak hurbil daude ta
libertadeko gorritasuna
zeinek ez du nahi ikusi.
Ihes doazen ur lodi horiek
ludi osoa hartuko dute
hasarrearen eskubideak
mintzo gogorrez altxa bai dira.
Ez kanta beltza! alperrik da ta!
indarren kontra jaso indarra!
zuen bizitza oso motza da.
Egin zazue librea.
Goseen Harlem doinu zakarra
izen gabeko miseri za(ha)rra
bular lehorrak zintzilik eta
irentsitako karraxi latza.
Ez kanta beltza, berriz ez kanta
indarren kontra jaso indarra.
Moises zerutik jeitsiko ez da.
Urreagatik saldu da.
Baina zu, beltza, hasten bazara,
gu ere beltzak izango gara
behin ta betiko burruka hortan
nausi berdinen legeen kontra.
Ez kanta beltza! Berriz ez kanta!
Itxi ahoa! Jaso ezpata!
Zure bizitza, zurea da ta
inork ez beza lapurtu!

Zaude isilik, haurra, ez egin negarri
munduak ez du eta malkoen beharrik.
Haunditzen zarenean ikusiko duzu
isilik egoteak zenbat balio dun.
Segi zure bidetik, hobe da horrela
gauza degeen...

XOXUAK *

Xoxuak galdu du mokoa
 mokoa, xoxua gaixoak
 nola kanta, nola txirula,
 nola kanta xoxuak?

Xoxuak galdu du begia
 burua
 lepoa
 bizkarra
 hegoa
 iztarra
 bustana
 isatsa

... xoxua gaixoak.

O GU HEMEN

O gu hemen bidean galduak (hiruz)
 heriotz minez.

Gizonen itzala luzea,
 negarrez haizea gauzan,
 arbolak erroak aidean,
 heriotza da.

O gu hemen...

Pobreak kalean bilutsik
 barnea esperantzik gabe
 doinua basoko tristuran,
 ilunabarrez.

HAURTXO HAURTXOA

Izu egin lo, aita urrun da,
 Euskadiren zerbitzuko.

Zure ondoan ama daukazu,
 etzaitu inoiz utziko.

Haurtxo haurtxoa, izu egin lo!
 Hemen nauzu zu zaintzeko.

Izu egin lo, aita preso da
 zu bihar libre izateko.

Egun batean etorriko da
 gu, biokin egoiteko.

Haurtxo...

Izu egin lo, ilunagatik
 zeruan izar bat dago.

Mila ta mila izango dira
 aita libratu ta gero.

Haurtxo...

ITURINGO AROTZA <

Ituringo arotza, Erramun Joakin
 hasarre omen zaude zeren dugun jakin
 Santurik ez laiteke fiatu zurekin;
 San Kristábal urtuta joaliak egin.
 Arotzak erran dio bere andreari:
 "Urtu behar dinagu okarran santu hori"
 "Gizona zerta zoaz? Bekatu da hori"
 "Etzionagu erranen sekulan nihori".
 Ituringo garaille, Ramuntxo Joakin,
 Hasarre amen zira zeren dudán jakin,
 konfesa zaitte ongi erretorarekin,
 ez dute zer fidatu Santuek zurekin.
 Kobrezko Santurikan inon bazarete,
 egoten al zarete hemendik aparte;
 baldin arotz horiek jakiten badute,
 garien egiteko urtuko zaituzte.

AMETS

Amets, bizitz amets,
 gazte amets, beti amets,
 beldur gabe, gure ametsa.
 Eta denok beti illun
 argi billa, pake billa,
 egi billa, Jainko billa.
 Bizitzak min ematen du
 negarroz jaio gisan.
 Maitasun gabe gabiltza,
 baina guk, berriz amets...

BAKEAREN URTXOA

Bakearen urtxoa, oi urtxo ezta,
 hogales kurri zazu lur zabal guztia
 Kontsola gerlapean dagoen jendia,
 hilen haur, ait'et'amak eta emaztia
 Kolpatan hormetan dabilan tristia,
 presoer dohakabe, hilik den bizia;
 Errozute doneri:

Jende gaixoak,
 Ez beha gau beltzari,
 bainan bai izarrerri!
 Bakea dela zueri!

Bakearen urtxoa, jarraik bideari,
 zure lili ezta eskainiz orori.
 Mintza zaitte zeinik dagon eriari,
 bihotza bero zozu xahar hoztuari,
 esperantza emozu kezkan dxn amari,
 bere latza ken azu hilen ezkilari.
 Errozute doneri:

Jende gaixoak

HAIKA MUTIL *

"Haika mutil, jeiki hadi,
 argia den mira hadi!"

"Bai nausia, argia da,
 gure oilarra kanpoan da".

"Haika mutil, jeiki hadi,
 euria den mira hadi!"

"Bai nausia, euria da,
 gure orra bustia da".

"Haika mutil, jeiki hadi,
 surik baden mira hadi!"

"Bai nausia, sua ba da,
 gur'katua beroa da".

"Haika mutik, jeiki hadi,
 kanpoan zer den mira hadi!"

"Bai nausia, haizea da,
 gur'leihoa ireki da".

"Haika mutil, jeiki hadi,
 kanpoan zer den miradi!"

"Bai nausia, olurra da,
 lurra xuriz estali da".

"Haika mutil, jeiki hadi
 urean zer den mira hadi!"

"Bai nausia, ardia da,
 aspaldian itoa da!"

"Haika mutil, jeiki hadi,
 zer oinon den mira hadi!"

"Bai nausia, egia da
 mutilto hau unatu da".

TTIKI-TTIKITIK *

Ttiki-ttikitik aitak ta amak
praile ninduten nombratu,
ta estudioak ikasitzera
Salamankara bidaldu.
Salamankara nindoalarik
bidean nuen pentsatu
estudiante tunante baino
hobe nuela ezkondu.
Jainko maiteak egin banindu
zeruetako giñtzari
azken orduan jakingo nuke
atea nori ireki.
Lehenengo aitari, gero amari,
gero anai-arrebari,
azken orduan isil-isilik
nire maite peltitari (ber).

GURE BIDE GALDUAK

Gu gazteok gaur gabiltzaz
mundu galdu honetan
gerra bat barruan degula
zer egin jakin gabe.
Gurasoen mundu aldrebes hau
ez dugu onartzen;
diruaren morroi izaten
erakutsi digute. (ber)
Ilunpe horren bakardade
galduak utzi gaitu;
argirik gabeko bideak
etorkimunik ez du.
Bizimodu lasai batengatik
idealak galdu;
bizitzaren gauza ederrenak
dizkigute zapaldu. (ber)

GURETZAT *

Guretzat berdin dira astea eta jaia
lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia.
Har ditzagun eskuan giltza eta laia
gariz eta burdinez lantzeko Bizkaia.
Gitarrarekin aire berri bat
daramagu kantuz egun,
abesti libre eta leiala
prestu eta noblezadun,
haren medioz zer garen ongi
izan gaitezen ezagun,
herri langile nekazaria
hala defendi dezagun.

AROTZA

Zazpi laguneko famili batean,
arotza zen gure aita.
Gure herriko alkate ez izan arren
lan egiten zuena.
Itsasoan urak handi dire
murgildu nahi duanentzat,
gure herriko lanak handi dire,
gogor dire, astun dire
zatiturik gaudenontzat.

MAITIARI GALDEZKA /

Maitia galdegin zautan
premu ni nintzanez (ber)
premu, premu nintzela baina
etxerik ez, etxerik ez.
Maitia galdegin zautan
poltsa banuenez (ber)
poltsa, poltsa, banuola
baina dirurik ez.
Maitia galdegin zautan
lana nekienez (ber)
lana, lana nekiela baina
gogorik ez.
Maitia galdegin zautan
polit ba nintzanez (ber)
polit, polit nintzela baina
larrua beltz, larrua beltz.
Gaisoak hiri behar dugu
guk biok gosez (ber)
Gosez, gosez hiri behar baina
elkar maitez, elkar maitez.

OI PELLO PELLO *

Oi Pello Pello! Iogale nauk eta
jinen niza ohera?
-Irun eza eta gero, gero, gero....
irun ozan eta gero, gero bai.
Oi Pello, Pello irun diat eta
jinen niza ohera?
Astalka zan eta gero, gero, gero...
astalka zan eta gero, gero bai.
Oi Pello Pello! astalkatu diat eta
jinen niza ohera?
-Ariika zan eta gero, gero, gero...
ariika zan eta gero, gero bai.
Oi Pello Pello! ariikatu diat eta
jinen niza ohera?
-Xuri ezan eta gero, gero, gero...
xuri ozan eta gero, gero bai.
Oi Pello Pello! xuritu diat eta
jinen niza ohera?
-Izazki zan eta gero, gero, gero...
izazki zan eta gero, gero bai.
Oi Pello Pello! izazki diat eta
jinen niza ohera?
-Pika zan eta gero, gero, gero...
pika zan eta gero, gero bai.
Oi Pello Pello! pikatu diat eta
jinen niza ohera?
-Jos ozan eta gero, gero, gero...
jos ozan eta gero, gero bai.
Oi Pello Pello! Josi diat eta
jinen niza ohera?
-Argia dun eta gero, gero, gero...
argia dun eta ez din balio!

SAN SIMON ETA SAN JUDA ✕

Simon eta San Juda
dan zen uda eta negua heldu da.
Ez balator hobe, bizi gara pobre
ariemu latz honetan
ez gara hain onak benetan.
Ez dugu zaldirik, ez gara zaldunak!
ez dugu abererik, ez gara aberatsak!
Euskara guk dugul Gu gara euskaldunak!
Euskara guk dugul Gu gara euskaldunak.

USOAK PONPORRON ✕

Usoak ponporron ponporronila
elorri baten ondoan;
geure alaba, gura ote dona
arotz mutil bat senartzat?
- Ez aita! Ez ama!
Hori ez da nik gura dudana,
(Ofizioak: argin, irakasle, jandilgilea.)

IPARRAGIRRE - ✕

Iparragirre habila dela
askori diot aditzen
askola ona eta musika
hori hoiekin zerbitzen.
Ni ez nauzu ibiltzen
kantuz dirua biltzen
komediante moduan
debalde festa preparatzen dut
gogoa dudan arduan.
Eskola ona eta musika
bertsolaria gainera
gure ere zerbaiz izanen gara
hola ornitzen bagara.
Atoz gure kalera
baserritar legera
musika hoiak utzita
Errrenderian bizi naiz eta
egin zaidazu bisita.

EÑAUT BIDEGORRI

Jakin duka berria:
Eñaut Bidegorri hil dela?
Atzo dena irria
nork erren gaur hilen dela?
Lurreko itzulia
harek egin loreak bezala.
Etzian aberatsa, etzian ha pobrea,
baina haren bihotza zer urrezko kalitza.
Adiskide bat zer den
nik behar dut hori jakinen
bihar bakar bakarrik
Eñautgabe bai naiz izanen.
Oi Eñaut adiskide
hik banintu hireganatzem.
Etzian aberatsa...

EZ NAZAZU UTZI

Ez nazazu utzil nik ez zaitut utzikol
Ez nazazu utzi, ez, nik ez zaitut utzikol
Negar egingo duzu iluhabarrenean,
baina poztuko zara eguna argitzean (ber
Amets egingo duzu ilunabarrean,
libretuko nautela eguna argitzean.

PELLO JOXEPE ✕

Pello Joxepe tabernan dela
haurra jaio da Larraulen.
Etxera joan ta esan omen du
ez da nirea izanen,
berarekin amak topa dezala
haur horrek aita zein duen.
Ai! Hau pena ta pesalombrea,
senarra haurra ukatu.
Haur horrentzako beste jaberik
ezin liteke topatu.
Pello Joxepe, bihotz nerea,
haur honek aita zu zaitu;
haur horrentzako beste jaberik
ezin liteke aurkitu.

GARIA SALTZEN

Garia saltzen nengoelarik
Donostiako kalean
dama gazte bat etorri zitzaidan
garia zenbanan nukean.
"Besteentzako hamar t'erdian,
zuretako ezkontz ordean".
"Ezkontz ordean baldin baduzu,
jar zaituz ezkonbidean!"

DILIN - DALAN ✕

Gure eliz dorreko ezquila zaharra
badauzka edaturik berrien bakarra.
Dilin, dalan, dalan,
din, dan boleran (ber).
Ene aitatxi zuten noizpait bataiatu
ezkil zaharra baitzen alegrantzaiatu.
Dilin...
Bainan ezquila mintzo, so, dezagun adi
haur ttipi bat sortu da, azkar bizi bedi
Dilin...
Kanta beza ezkilak menderen mendetan,
Kanta beza bizia Euskal Herrietan!

ITSASTAR HAURRA -

Oil ama, amatxol
Paper zuriz eidazu txalupa,
txalupa bat, txalupa bi,
txalupa bost, hamaika.
Aurrean branka, atzean txopa,
ta erdi-erdian masta bat zorrotza.
Oil nere txalupa, txalupa polita,
hain handi ta txiki
kalan dago lerroka.
Boga, boga marinela, joan behar dugu
urrutira, bai indietara, izarrak
sortzen diren herrira.

GUK EUSKARAZ X

Euskara putzu sakon ta ilun bat zen
Euskara putzu sakon baailun bat zen
eta zuek denok ur gazi bat
atera zenuten handik nekez (ber)
GUK EUSKARAZ ZUK ZERGATIK EZ? (ber)
Orain zuen birtutez zuen indarrez
Orain zuen birtutez zuen indarrez
Euskara itsaso urdin eta zabal bat
izanen da. Eta guria da (ber)
EUK EUSKARAZ, ZUK ZERGATIK EZ? (ber)

BAGARE BAGARA X

Araban bagare Gipuzkun bagera
Ziberun bagire ta Bizkaian bagara (ber)
baita ere Lapurdi ta Nafarra.
Guztiok gara euskaldun
Guztiok anaiak gara
nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu hizkera.
Herri bat dugu osatzen
eta gure zabaikeriz
ez daigun utzi ondutzen.
Bagare bagera, bagire bagara,
Euskadi askatzeko
oraintxe dugu aukera. (ber)

MARKESAREN ALABA

Zeruak eta lurak
egin zituenak
memorlargetzera
atoz niregana
esperantza badaukat
zedorrek emana
kunplitzeko dedala
desio emana.
Amorioroko penak
bertso berrietan
publika albanintza
Euskal Herrietan;
enteratu nahi ongi
enkargu hoietan
San Jose arratsaldeko
hiru t'erdietan.
Markes baten alaba
interesatua
mariferuarekin
enamoratua.
Deskubritu gaberik
bere sekretua
amoriau zeukan
barrenan sartua.

MENDI TONTORRETIK

Mendi tontorretik dugunean ikusten
gure Euskal herriak arnasaz berritzen.
Gu euskaldunak garenez
mendi puntatik ikusten ari gara
euskara zabaltzen.
Nork eginak ote horren gauza ederrak:
mendi tontor berde ta gure euskara?.

EZIN ISILIK GORDE!

BAKOITZAK BERE

Egunseñti bakoitzak bere eguzkia
laino bakoitzak bere eurialdia;
Herri bakoitzak bere birjaiotza
Euskal Herriak bere iraultza (ber)
Iraultza bakoitzak bere bidea;
larrosa bakoitzak bere lorea,
orreak bakoitzak bere uraldia,
Euskal Herriak bere autonomia.
Autonomia bakoitzak bere helburua,
landare bakoitzak bere fruitua,
ama bakoitzak bere maitasuna,
Euskal Herriak bere askatasuna. (ber)
Askatasun bakoitzak bere lokarria,
gau bakoitzak bere ilargia,
abere bakoitzak bere janaria,
Euskal Herriak bere langileria (ber).

JEIKI JEIKI

Jeiki jeiki euskaldunak
argia da zabal. (ber)
Itsasoan ageri da argi gozo biguna
bere aurrean beldurtuta
ihes doa iluna (ber).

GERNIKAKO ARBOLA X

Gernikako arbola da bedeinkatua,
euskaldunen artean guztiz maitatua (ber)
Eman ta zabal zazu munduan frutua.
Adoratzen zaitugu arbola santua (ber).

ANTONI ANTON

"Antoni Antoni zure aitean nag" ni"
"Ai Anton ai Anton ate ondoan horkonpon!
Normatxoriak negugorrian
ez du atsegin elurra
zerua goibel, kabia hotza
ta janari gabe lurra.
Ai maite zure bihotzak duen
zure hotzaren beldurra!
Biontzat kabi bat berotzeko
bilduko nuke egurra.

EUSKARA OI EUSKARA

Euskara oi euskara zu daukat gorderik
mende mende egoki euskaldun gogoa (ber).
Euskaldun jaio nintzen
Euskaldun hasi
Euskara hutsik amak zidan erakutsi
Euskara maite maite
zauk nirekin beti
Euskara hil ezkeru
ez nuke nahi bizi (ber)

AMETS

Amets, amets egin itsas gizona
Amets, zure ametsa gerta leikena.
Berriz etorriko zara Ondarruko kaierra
han daukazu maitea itxaroten duzuna.
Berriz etorriko zara zure txaluparekin
han daukazu maitea ta bihotza. (ber).

GUK EUSKARAZ

Euskara putzu sakon ta ilun bat zen
Euskara putzu sakon ~~ta~~ ilun bat zen
eta zuek denok ur gazi bat } (ber)
atera zenuten handik nekez }
GUK EUSKARAZ ZUK ZERGATIK EZ? (ber)
Orain zuen birtutez zuen indarrez
Orain zuen birtutez zuen indarrez
Euskara itsaso urdin eta zabal bat } ber.
izanen da. Eta guria da (ber)
GUK EUSKARAZ, ZUK ZERGATIK EZ? (ber)

BAGARE BAGARA

Araban bagare Gipuzkun bagera
Ziberun bagire ta Bizkaian bagara (ber)
baita ere Lapurdi ta Nafarra.
Guztiok gara euskaldun
Guztiok anaiak gara
nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu hizkera.
Herri bat dugu osatzen
eta gure zabatkeriz
ez daigun utzi ondatzen.
Bagare bagera, bagire bagara, } ber.
Euskadi askatzeko
oraintxe dugu aukera. (ber)

MARKESAREN ALABA

Zeruak eta lurra
egin zituenak
memoriargitzera
atoz niregana
esperantza badaukat
zedorrek emana
kunplitzeko dedala
desio emana.
Amorioroko penak
bertso berrietan
publika albanintza
Euskal Herrietan;
enteratu naiz ongi
enkargu hoietan
San Jose arratsaldeko
hiru t'erdietan.
Markes baten alaba
interesatua
mariñeruekin
enamoratua.
Deskubritu gaberik
bere sekretua
amoriau zeukan
barrenan sartua.

MENDI TONTORRETIK

Mendi tontorretik dugunean ikusten
gure Euskal herriak arnasaz berritzen.
Gu euskaldunak garenez, *parareu pite?*
mendi puntatik ikusten ari gara
euskara zabaltzen.
Nork eginak ote horren gauza ederrak:
mendi tontor berde ta gure euskara?.

BAKOITZAK BERE

Egunsenti bakoitzak bere eguzkia
laino bakoitzak bere euria; dia;
Herri bakoitzak bere birjaiotza
Euskal Herriak bere iraultza (ber)
Iraultza bakoitzak bere bidea,
larrosa bakoitzak bere lorea,
erreka bakoitzak bere uraldia,
Euskal Herriak bere autonomia.
Autonomia bakoitzak bere helburua,
landare bakoitzak bere fruitua,
ama bakoitzak bere maitasuna,
Euskal Herriak bere askatasuna. (ber)
Askatasun bakoitzak bere lokarria,
gau bakoitzak bere ilargia,
abere bakoitzak bere janaria,
Euskal Herriak bere langileria (ber).

JEIKI JEIKI

Jeiki jeiki euskaldunak
argia da zabal. (ber)
Itsasoan ageri da argi gozo biguna
bere aurrean beldurtuta
ihes doa iluna (ber).

GERNIKAKO ARBOLA

Gernikako arbola da bedeinkatua,
euskaldunen artean guztiz maitatua (ber)
Eman ta zabal zazu munduan frutua.
Adoratzen zaitugu arbola santua (ber).

ANTONI ANTON

"Antoni Antoni zure atean nagi ni"
"Ai Anton ai Anton ate ondoan horkonpon!
Hormatxoriak negugorrian
ez du atsegin elurra
zerua goibel, kabia hotza
ta janari gabe lurra.
Ai maite nare bihotzak duen
zure hotzaren beldurra!
Biontzat kabi bat berotzeko
bilduko nuke egurra.

EUSKARA OI EUSKARA

Euskara oi euskara zu daukat gorderik
mendez mende egoki euskaldun gogoa (ber).
Euskaldun jaio nintzen
Euskaldun hazi
Euskara hutsik amak zidan erakutsi
Euskara maite maite
zauk nirekin beti
Euskara hil ezkeru
ez nuke nahi bizi (ber)

AMETS

Amets, amets egin itsas gizona
Amets, zure ametsa gerta leikena.
Berriz etorriko zara Ondarruko kaiera
han daukazu maitea itxaroten duzuna.
Berriz etorriko zara zure txaluparekin
han daukazu maitea ta bihotza. (ber).

HALA KAN

Hala kan, hala kan
nire osaba dago Afrikan
lehoi batek jan dio hankan
ai! zelako miñia daukan (ber)
Hala ken, hala ken,
atzo basora joan nintzen
tigre txiki bat txistua jotzen
abere guztiak dantzatzen (ber)
Hala kin, hala kin,
tximinoa danborrakin
hipopotamoak daude zikin
txori guztiak nirekin (ber).
Hala kon, hala kon,
niri kitarra bat emon,
elefanteak isilik egon
eta beste horkonpon (ber)
Hala kun, hala kun,
han dauzkat mila lagun,
bihar da beste egun,
berriz kanta dezagun (ber).

ALPERRAREN ASTEA

Astelehena jai ondoren alperra
ezer ez egiteko ez goaz lanera
taez goaz lanera, ez goaz lanera (ber)
Astearte euria goitik bera
busti eginga gara ta ez goaz lanera
Asteazkena, osaba ezkontzen da
eta jai hartzen badu ez goaz lanera.
Osteguna, amonaren eguna
hori ospatutzeko ez goaz lanera.
Ostirala, aginetako mina
aspirina hartuta bagoaz ohera.
Iarunbata, egun erdiko lana
egun erdiagatik ez goaz lanera.
Igandea, lantegia itxita
lan egin nahi baina ezin joan lanera.

TIK TIKI TAK

Atzo goizean ikusi nuen ~~gizon bat~~
gizon bat mendian.
Hantxe zebilen indarrez indar
aizkolaria.
Tik tiki tak, tik tiki tak,
ari zen mendian.
Tik tiki tak, tik tiki tak
aizkolaria.
Tik tik tiki tak, tik tik tiki tak...

AZOKARA

Behin joan nintzen azokara
erosi nuen txakur bat.
Txakurrak guau guau nik xaxa berari,
eraman nion amari.
Behin joan.....
Katuakmiau miau
Txerriak kurri kurri
Txistuak fli fli
.....

AMETSA

Txoria nintzela, txoria nintzela
sinistu nuen, sinistu.
Amets polit hura, amets polit hura
gaur ere nahi nuke sinistu.
(asma animalia, lanbide...)

BEHIN BATEAN

Behin batean ihes ikastolatik nintzela
autoan joan nintzen aitaren baserrira.
Autoan nindoala po - po - po - po
Behin batean.....
trenean, bizikletan, zaldian, motorrean

JOXEPA ETA JOXEPE

Joxepa eta Joxepe, Joxepatxo ta Josetxo
famili abeslari bat
laurek osatzen digute.
ñem, ñem, ñem, ñem, ñem, ñem, ñem, ñem,
ñem, ñem, ñem, ñem, ñem, ñem, ñem, ñem,
ñem, ñemkeinuka: biboliña
po, po, po....." : tronboia
ku, ku, kukurruku...." : oilarra
pi, pi, pi, pipipiripi : txoria
ta, ta, ta: txaloa
.....

ASTOA IKUSI NUEN

Astoa ikusi nuen betaurrekoekin
buruan txapela ta gabardinarekin,
ile luzea eta bibotearekin,
hizketan egon ginen atzo elkarrakin.
Astoak esan zidan triste zegoela
oso zatarra zela bere ikastola,
berak gure gelara joan nahi zuela,
gure artean ondo konponduko zela.
Baietz esan nion nik, lasai etortzeko
arkatza eta bloka dendan erosteko,
astoa izan arren trankil egoteko
asko ikasi eta zintzo portatzeko.

BAT, BI, ...

Bat, bi, hiru, lau, bat bihiru lau,
bost sei zazpi, bost sei zazpi
ikastolak irabazi irabazi aurrera.
Andoni gaixo dago tripako miñakin,
amatxo joaten zaio txokolatiakin.
Bat, bi.....
(letza berria asmatzeko aproposa).

URTXINTXAK

Urtxintzak oihanean jauzika,
aldazkatik aldazkara.
"Zuk esaidazu ama, zergatik
ez diren erortzen lurrera?".
"Nik ere nahi nuke
izan urtxintxa bezala,
hain gora hain trebe, izateko libre".
Urtxintzak oihanean zintzilik,
buruz behera buztanetik.
"Zuk esaidazu ama, zergatik
ez duten burukomiñik".

13
XG.- NERE ETORRERA LUR MAITERRA

Ara, nun diran mendi maitiak,
ara, nun diran zelaiak,
basezri eder zuri-zuziak,
iturri eta ibaiak.

Endaian nago zoraturikan,
zabal-zabalik begiak;
ara, Espafia, lur obezikan
ez da Europa guztian.

Gero pozik bai Donostiara,
Skendoaren lurrera.
Zeru polit au utzi bearra,
nere anaiak, au pena!

Iru-trulueta maitagarria,
lore tokia zu zera:
Benezianen grazi guziak
gaur Donostian badira.

O! Euskal-erri, eder maitea,
ara emen zure semea,
bere lurrari mun egitera
beste gabe etorria.

Zuregatikan emango nuke
pozik, bai, nere bizia;
beti zuretzat, ii anteraño,
gorputz ta arima guztia.

X.- HERRIBEHERA

Herribehera herribehera
zure landen zabalera
ortzi-muga den hartan mugatzen da.

Zure lur emankorretan
luruzen dinen asmoak
gegetsu hartako ahal ditu lur gozoak.

Zure gastelu zaharrek
gordetik duten aintzina
hate tristetan mintzo da haren mina.

Ora zahar arraituetan
xoriak dira kantatzen
mendetako le geldia salatzen.

Nafarroa araiia zaharra
kondairaren lehen zuztarra
bege higan arbasoen amets hurra.

(E. Lertxundi. Oro laño..AZ-3)

XI.- NERE MAITEARENIZAT

Ume eder bat ikusi nuen
Donostiako kalean,
itz erditxo bat ari esan gabe,
nola pasatu parean?
Gorputza zuan liraiña eta
oiñak zebiltzen aldean;
politagorik ez det ikusi
nere begien aurrean.

Aingeru zuri, pare gabea,
Euskal-erriko alaba,
usterik gabe zugana beti
nere biotzak narama.
Ikusi naian beti or nabil,
nere maitea, au lana!...
zoraturikan emen naukazu
beti pentsatzen zugana.

Galai gazteak galdetzen dute:
aingeru ori nun dago?
Nere maitea nola deitzen dan
ez du ifortxok jakingo;
ez berak ere, ez luke naiko;
konfiantza orretan nago.
Amoriodun biotz oberik
Euskal-errian ez dago.

XII.- NERE AMAX BA-LEKI

Zibillak esan naute
bizi egoiki,
Tolosan bear dala
gauza erabaki.
Giltzapian sartu naute
poliki poliki,
negar egingo luke
nere amax ba-leki.

Jesus tribunalian
zutenian sartu,
etzion Pilatos-ek
kulparik billatu.
Neri ere arkitu
ez dirate barkatu;
zegatik ez dituzte
eskuak garbitu?

Kartzelatik atera
fiskalen etxera
abisatu ziraten
joateko beriala.
Ez etortzeko geiago
probintzi onetara,
orduan artu nuen
Santander aldera.

(Iparragirre)

12.- AGUR EUSKAL-ERRIARI

Gazte gaztetandikan
erritik kanpora
estranjeri aldean
pasa det denbora.
Erri-alde guztietan
toki onak badira,
baiña biotzak dio:
"Zoaz Euskal-errira".

Agur nere biotzeko
amatxo maitea!
Laster etorriko naiz
konsola zaita.
Jaungoikoak, ba, nai zu
ni urez joatea;
ama, zentarako da
negar egitea?

Lur maitea emen uzten
da negargarria.
Emen gelditzen dira
ama ta erria.
Urez noa ikustera,
bai, mundu berria;
oraintxe, bai, naizela
errukigarria.

134.- IYA GURIAK EGIN DU

Iya guriak egin du
ba dugu zeinek agindu
ez oraindik umildu
alkarregana bildu,
gerra nahi duen guzia
berari kendu bizia.

Ez naiz ni gerraren zale
baizik pakearen alde
zeinek nahi duen galde
berari tira dale,
bala bat sartu buruan
aspertuko da orduan.

Gu gera zazpi probintzi
lehengo legerik ez utzi
hoieri firme eutsi
naiz hanka bana hautsi
jaioko dira berriak
gu gera Euskal Herriak.

(A. Valverde)

E2

XIII.- ZIBILAK ESAN NAUTE

Zibilak esan naute
bizi egoiki
Tolosan biar dala
gauza erabaki;
giltzapian sartu naute
poliki, poliki,
negar egingo luke
nere amax baleki.
Jesus tribunalian
zutenian sartu
etzien Pilatosek
kulparik billatu;
neri ere argitu
ez dirate barkatu
zegatik ez dituzte
eskuak garbitu.

(Iparragirre)

XIV.- ATOP, ATOP MUTIL ETXERA

Atop, atop mutil etxera
gastañak ximelak jatera
gabon gaba ospatutzeko
aitaren eta amaren ondoan.
Ikusiko dek aita parrezka
ama ere poz atsegifitez.
Eraioak mutil aurreko danbolin
orri
gastañak erre artean (bis)
txipli txapla pun
gabon gaba pozik igaro daigun.

(J. Guridi-Oi Bethleen AG7008)

XV.- POSTA HOIER

Gizona kartzelan sartu dute
Zer esan du?
Zer egin du?
Sementzat ogia eskatu du.
Eta poeta, eta poeta
etxean gelditu da ateak itxita.

Gizona zigorrez jo dute
Zer esan du?
Zer egin du?
Giziontsat egia eskatu du.
Eta poeta, eta poeta
kalean gelditu da begiak itxita.

Gizona kartzelan hantxe dago
Zer esan zun?
Zer egin zun?
Justizia apur bat eskatu zun.
Eta poeta, eta poeta
ixilik gelditu da, beldurrak eragin da.

139.- XURXURI BATEN GAINEAN

Xurxuri baten gainean
xoriak kantatzen du
kantatzen du biziari.

Xoriek ez dakite
Mundu huntan
Zer gertatzen den:
Hamar jendetarik sei
Nola gosearekin dauden
Bainan guk ba dakigu
Ta hori aski zauku.

Xoriek ez dakite
Gizon onak
Preso ba direla
Eta Euskadin ere
Euskaldunak hortan girela
Bainan guk ba dakigu
Ta hori aski zauku.

(Marlex Pagola)

140.- KAPITALISMOAK

Kapitalismoak dakarren
katali ta zapalketa
izan dadila guretzat
indar askatzailea.

Nagusi lantokietan
basezri ta eskoletan
gure herriko nausiak
izan arte aurrea.

Aurrera langile dia
aurrera herri-gizona
etsaiak puskatu arte
jo dezagun aurrera.

Langile, nekazariak
euskaldun guztiak
ez dezagun gure herrian
klase diferentziak
egin dezagun biharko
Euskadi sozialista bat.

(C. Mendibil-Xeberri.
I.Z. 104)